

Nietzsche, filologia eta kultura

Aritz Pardina Herrero
Filosofian doktoregaia

Sarrera: jarraipenaren korrontearen aurkezpena

Nietzscheren pentsamenduak ertz asko ditu, oso heterogeneoa da. Hori bereziki nabarmena da haren gaztetako filosofiatik helduaroko lehen liburuetarako jautsian. Izan ere, argitaratu zituen lehen lanetan, *Tragediaren jaiotza*-n (1872) eta *Ezorduko gogoetak* bilduman (1873-1876), aurki daitezke ildo bereko planteamenduak. Ostera, *Gizatiarra, gizatiarregia* (1879) liburuarekin, estiloa eta gaiak aldatu zituen autoreak. Idazkerari dagokionez, prosa jarraituan ariztetik aforismoetan idaztera pasatu zen eta, lehen liburuko ekarpen nagusiak –musikaren metafisikak–, berriz, desagertzea egin zuen. Horrek, urte luzeetan, ikertzaileak harritu ditu. Horregatik, orain dela gutxira arte, Nietzscheren ideietan hausturak eta kontraesanak daudela uste izan dute bai adituek, bai ohiko irakurleek.

Aurreko hamarkadan, ostera, estreinakoz, Nietzscheren obra osoaren edizio kritikoa argitaratu zen gaztelaniaz, autorearen *Nachlass*-arekin batera.¹ *Nachlass*-a hil ondorengo pasarteak dira, arrebak, Elisabeth Förster-Nietzscher, 1884az geroztik argitaratuak.² Material horiek, oro har, atzerriko hizkuntzetan soilik editatuta zeuden, ordea. Besteak beste, filosofoaren eskuizkribuak, klaseetako apunteak, konferentzien testuak eta proiektuen ideiak agertzen dira orri horietan. Bestalde, Nietzscheren korrespondentzia osoa ere eskuragarri dago gaztelaniaz. Horrek, noski, autorearen interpretatzeko aukerak areagotu ditu, nola gaztelaniadun esparruan, hala eremu elebidunetan ere. Lehenengoz, aukera dugu pentsalariaren ibilbide intelektuala hobeto ezagutzeko eta haren hausturen arrazoietan arakatzeko.

Azterketa horretan, baina, hainbat ikertzaile konturatu da, egiaz, Nietzschek denboran landutako zenbait gaik dirudiena baino koherentzia handiagoa dutela. Ondorio horrek hil ondorengo idazkietan du oinarria, horietan aurki baitaiteke autoreak isilean egin zuen lanaren aztarrena. Hala, azkenaldian, hausturaren korronteak indarra galdu du eta, gaur-gaurkoz, jarraitutasuna defendatzen duten autoreak dira nagusi. Ni, korronte horri jarraituz, Nietzscheren idatzi filologikoak lantzen ari naiz azkenaldian. Eta, ikuspuntu horretatik, horretan, filologia eta filosofia lotzen dituen hariari tiraka hasi naiz. Zehazki, estalgabetu dut Nietzscheren lan filologikoez zeresan handia dutela autoreak burutu zuen modernitatearen kultura-kritika ulertzeko. Artikulu honek lotura hori du hizpide.

Filologia eta *Bildung*-a

Nietzschek, 1868ko maiatzean, hau eskatu zion Erwin Rohde lagunari gutun bidez:

Guri dagokigunez, saia gaitezen filologo gazteak, beharrezko eszeptizismoarekin eta pedanterkeriarik gabe [...], humanitate ikasketen egiazko sustatzaileak izan daitezen.³

Zergatik, ordea, filologiarekiko kezka hori? Bada, Nietzsche, izatez, filologo klasikoa zelako, filosofo bezala ezagutzen badugu ere.⁴ Naumburgeko *Domgymnasium*-ean lehenik eta, ondoren, *Schulpforta* ospetsu eta elitistan egin zituen ikasketak. Exijentzia handiko hezkuntza planak zituzten zentrook, autoreak berak gaztetako egunerokoan jasotzen duenez. Bertan, antzinako obra greko-latindarrak ardatz izaten zituztenez, hezkuntza klasikoan murgildu zen lehenengoz: latina eta grekoa ez ezik, alemana ere sakon ikasi zuen eta, gainera, literaturako klasiko alemanak ere –Goethe, Schiller eta abar– arretaz landu zituen. Oinarri horrekin, Bonn eta Leipzigekeko unibertsitateetan filologia klasikoko ikasketak egin zituen.

1864an Bonneko Unibertsitatean sartu zenean, berriz, Otto Jahn eta Friedrich Ritschlekin egin zuen topo, garaiko filologia klasikoko irakasle nabarmenetakoekin. Biek ala biek asko erakarri zuten Nietzsche, metodologia hibridoak bultzatzen baitzituzten, hots, zientzia eta humanitateak uztartzen zituzten ikerketa bideak. Dena dela, arrazoi ugari tarteko,⁵ azkenik, Ritschlekin Leipziger lekualdatu zen filologia ikasle gaztea. Motibo guztien artean, ordea, bada azpimarratzeko moduko bat: Ritschlek giza hezkuntza osoa bultzatzen zuela. Hori, garai hartan, Nietzsche bizi garrantzitsua iruditu zitzaion.

Izan ere, XIX. mende hasiera aldametako handikoa izan zen, Germaniako Erromatar Inperio Santua behin betiko desagertu baitzen. Horren ondorioz, 1806tik aurrera, gizarte estamantetik gizarte industrial burgeserako aldametako hasi zen, erreforma prusiarren karira. Horrek, noski, behar berriak ekarri zituen, lanpostu ugari sortu baitzen denbora gutxian. Gizartearen erronka berriei heltzeko, ‘hezkuntza klasikoa’ deituriko ikasketak plana abiatu zuten estatuek. Programak, ordea, ez zuten zerikusirik Nietzschek gaztetan gauzatu zituen izen bereko Antzinaroaren ikasketekin; kontrara, politikarien egiazko helburua zen lantegietako jarduerari eustea, jaio berri zen gizartearen behar materialak asetzeko. Zinez, pertsonak kulturalki aberastea baino, estatuaren helburua ekonomia bultzatzea zen. Horretarako, langileak bizkor, masan eta jakintza espezializatueta formatu behar ziren. XIX. mende erdialdean (Nietzsche unibertsitatean ikasten ari zenean), humanitateen ikuspuntutik, hezkuntza gainbehera larrian zegoen.

Hori gutxi balitz bezala, humanitate ikasketak zokoratzen zituen estatuaz gain, bazegoen, eremu akademikoan bertan, beste faktore kaltegarri bat ere: zientziaren garapena. Izan ere, sasoi hartan, baliabide tekniko eta teknologikoek onera egin zuten. Horregatik, natur zientziek pisu handia hartu zuten gizartearen, ezagutza kontuez gain, gizarte berriaren premiei ezin hobe erantzuten zitelako. Hori ikusita, humanitate dizipliniek beharra sentitu zuten metodologia zientifiko-naturalista imitatu eta, bide horretatik, euren buruari zientziaren estatusa emateko. Nietzsche aburuz, ordea, gorabehera horietan ari zirela, humanitateek begi-bistatik galdu zuten euren xedea: *Bildung*-a indartzea.

Bada, Nietzschek, zati honi sarrera eman dion gutunean humanitateen bultzatzaileak aipatzean, *Bildung* kontzeptu alemana zuen buruan. Hori oso argigarria da gure analisirako, zeren eta, hitz horren ohiko itzulpenak ‘formazio’ eta ‘hezkuntza’ badira ere, alemanezko eremu semantikoak ‘kultura’ ere hartzen du barnean. Hala, Rohderi humanitateak akuilatu behar zituztela esan zionean, Nietzschek aintzat zuen ez soilik eremu akademikoan zientziari pisua kendu behar zitzaioela, baizik eta, batez ere, diziplinen arteko orekak kulturaren eraldaketa ekarri behar zuela. Bilakaera horretarako, pentsalariaren iritziz, filologo klasikoa zen pertsonarik adierazgarriena.

Izan ere, filologia klasikoak esentzia hirukoitza zuen Nietzschek ustez. Hala adierazi zuen 1869an, Basileako Unibertsitateko filologia klasikoko katedraren irekitze-konferentzian.

Baieztapen horrekin, gainera, aurka egin zion filologo positibista gogorrenen usteari, zeinaren arabera humanitateak eta zientzia arlo kontrajarriak ziren:

Filologia klasikoak barnean hartzen ditu historia pixka bat, zientzia natural pixka bat eta estetika pixka bat: historia [...] norbanako ezagun jakin batzuen adierazpenak ulertu nahi dituelako; zientzia naturala, gizakiaren instintu sakonenean arakatu nahi duelako, lengoaiaren instintuan; azkenik, estetika [...] hala deituriko Antzinaro 'klasikoa' ikasten duelako, ehortzitako mundu ideal hori lurpetik ateratzeko, [...] gaur egungo munduari betiereko ereduak erakusteko.⁶

Ikus daitekeenez, katedratiko berriak bazuen Ritschl tutorearen joera bateratzailetik. Alabaina, maisua ez zen ohiz kanpoko ikertzailea, XIX. mende erdialdean humanismoa borborka ari baitzen, eta korrante horretako autoreek ere hezkuntza osoaren ideia defendatzen baitzuten. Horren adibide ditugu, esaterako, Friedrich A. Wolf eta Wilhelm von Humboldt, 1810ean Berlineko Unibertsitatea sortu zuten filologo klasiko entzutetsuak. Biak ala biak, Humboldt adierazgarriagoa izan bazen ere, pisu handia izan zuten humanismoa ezartzeko garaian. Hain justu, unibertsitatearen sorrerak *Bildung*-aren ikusmolde jakin bat zuten oinarrian,⁷ jarraian aipatuko ditudan puntuetan oinarritzen zena:

- Ikasleen gaitasun orokorrak indartzen zituzten, unibertsitateak irtetearen erabateko autonomia izan zezaten.
- Unibertsitatea amaituta, ikasleak formakuntza propioa egiteko gai izan behar zuten, inolako tutoretzarik gabe.
- Pertsonen askatasuna bakardadean oinarritzen zen.
- Zientzia guztiz osatzea ezinezkoa zela aldarrikatzen zuten.
- Defendatu zuten aldebakartasunak ez zuela lekurik goi mailako zentroetan (metodo zientifikoaren gainjartzeari erreferentzia eginez).
- Metodoa, euren aburuz, ikasle/irakasle erlazioan sortzen zen, eta kontzeptu horrek, egia estalgabetzeko tresnei baino, ikasleak bere kabuz egia aurkitzeko garatzen zituen prozesuei egiten zien erreferentzia.

Zerrenda hori kontuan izanda, errazago uler daiteke zergatik uste zuten Nietzschek filologo klasikoa zela *Bildung*-aren bultzatzaile nabarmenena. Arrazoia da Wolfek eta Humboldtkek, unibertsitatearen sorrerarekin, izugarritzko erakunde- eta politika-babesa eman ziotela eurek lantzen zuten ezagutza arloari. Hori da, ezagutza klasikoak barruan hartzen zituen elementuekin batuta –historia, zientzia naturala eta estetika–, Nietzschek diziplina hori Antzinaroaren zientzia nagusitzat (*Altertumswissenschaft*) hartzeko arrazoia.

Zalantzarik gabe, artikulu honetarako, zerrendatutako puntuen artetik aldebakartasunarena da garrantzitsuena, zeren eta Nietzschek hauteman zuten filologian desoreka handia zegoela. Haren hiru osagaien artetik, garai hartan, zientzia zen indartsuena. Historia, halaber, zientziak irentsi zuten, hurrengo lanetan sakonago kritikatu zuten moduan.⁸ Azkenik, estetika baztertu egiten zen, espekulazio iturri zelakoan edota, okerragoa dena, apaingarri soiltzat hartzen zelako. Hori ikusita, Nietzschek filologia klasikoaren berezko oreka berreskuratu nahi izan zuten. Ondorioz, intentzioa ez zen zientzia ezagutza arloaren eremutik kanpora bidaltzea. Aitzitik, ikuspuntu integratzailea zuten: hiru zatiak fin eta era naturalean harilkatu behar ziren, filologiak kultura puztuko bazuen.

Nietzschek ez zuten, hortaz, oinarri objektiboen beharra ukatu: ikusi dugu hezkuntza oso zorrotza jaso zuela eta, beraz, ohituta zegoela testuaren gainean lan egiten. Bestalde, oinarri

fidagarriak izateari funtsezko iritzi zion, Antzinaroa ulertzeko eta gertakari historikoak kokatzeko abiapuntu egokia behar zelako. Aurkakoa defendatzea ez litzateke autorearen izaerarekin bat etorriko. Edonola ere, ikuspuntu zientifikoak ez zuen desilusia ekarri beharrik. Kontrara, Nietzscheren iritziak, Antzinaro klasikoari buruzko ikasketak egiten zituztenek harenganako pasioa erakutsi behar zuten. Hori zen, batetik, ikasle gazteak erakartzeko bidea eta, bestetik, baita eurengan espiritu zientifikoa sustatzeko modurik onena ere. Grina hori transmititzeko, baina, gogo beroz jardun behar zen edukien gainean, ez akademiaren hoztasunetik soilik. Autorearen ustez, gazteen interesa eta ikerketa-gosea pizteko, eraginkorrak ziren Hölderlin, Goethe eta antzekoen ekarpenak, Antzinaro klasikoa berpizten zuten heinean. Horrez gain, Nietzsche goiz konturatu zen bazegoela ikasketa arlo bat zientziatik eta artetik (literaturatik) zuena: filosofia. Horregatik, estetika aipatzean, filologian filosofia txertatzeaz ari da, bi diziplinen arteko zubi lanaz.

Baina, asmo horri jarraiki, azkenean, Nietzschek desoreka beste aldera eramanean zuen, eta horren adibide dugu 1872ko urtarrilean argitaratu zuen liburua: *Tragediaren jaiotza*. Filosofoaren *opera prima*-k, besteak beste, filologia klasiko zientziazaleari aurka egin nahi izan zion, era puskatzailean egin ere: musika, mitoa eta metafisika dira nagusi liburu horretan; zientziarik ez, beraz, garaiko akademikoen arabera. Azkenean, Schopenhauerren musikaren estetikaren eraginpean –eta suhartasun wagneriarrak akuilatuta–, Antzinaro Greziako tragediaren interpretazioaren oinarri zientifikoa dantzan jarri zuen. Horrek, noski, zeresana eman zuen, eta ez txikia, bidenabar: izugarritzko polemikaren ondoren,⁹ Nietzsche ikaslerik gabe gelditu baitzen hurrengo seihilekorako. Hainbestekoa izan zen eskandalua, ezen Ritschl irakaslea bera ere mutu utzi baitzuen.

Guztiarekin ere, sarreraren esan dudaren bezala, lehen liburu horretako ideiek agudo galdu zuten indarra. Kontrara, isilpean egin zituen lan filologikoen, filosofoaren ikuspuntutik garrantzi gabeak diruditenak, eragin handiagoa izan zuten ondorengo lanetan: horietan ondo ikusten da filologia eta filosofia nola uztartu zituen. Lotura hori erakusteko, Demokritori buruzko 1867ko testu bat ikusiko dugu jarraian. Espero dut, bestalde, adibideak metodoaren auzia hobeto ulertzen ere lagunduko duela.

Filologiatik etorri zen filosofia

Nietzscheren gaztetako koaderno batean (1867ko udaberria - 1868ko negua) *Democritea* izeneko idazki sorta dago. Besteizen bat ere eman zion, ordea: «Demokritori buruzko saiakerarako apunteak». Orriotan material ugari bildu zuen, honako helburuarekin: Abderako Demokritoren liburuen sailkapenak eta katalogoak aztertzea, haren lanen egiazkotasuna eta kopurua zehazteko. Hasiera batean, ariketa filologiko soila egin nahi zuen.

Baina izan zuen ezustekorik ere, zeren eta, lanean ari zela, bitxikeria batek distraitu zuen; hainbeste, non, azkenean, ez baitzuen Demokritoren lanari buruzko ondoriorik atera. Aitzitik, fokua Mendeko Trasiloren gain jarri zuen, zehazki, Alexandriako gramatikari eta kritikari literarioak ondu zuen Demokritoren obraren sailkapenean. Izan ere, ikastun hark filosofo greziarren lanaren banaketa tetralogikoa egin zuen, hau da, lau liburuko multzoetan antolatu zuen. Hori, baina, ez zettorren bat lan zientifikoen sailkapenekin. Kontrara, lauko multzoak antzerki lanetan ziren ohikoak.

Horrenbestez, lau liburuko banatze horrek beste oinarriren bat behar zuen. Funtsean horren bila, beste xehetasun batekin konturatu zen Nietzsche: Demokritorena ez ezik, Platonen lana ere lauko multzoetan antolatu zuela. Edonola ere, azken sailkapen hori arrazoizkoa irudit

zitzaion, Platon pitagorikoa baitzen eta, Pitagorasen jarraitzaileen aburuz, kuaternitatea (τετρακτύς (*tetraktys*), ‘lau sakratua’) baitzen «naturaren iturri eta sustraia».¹⁰ Ideia horri jarraiki, Trasilok multzo laukoitzetan banatu zuen bi pentsalari greziarren obra. Dena dela, oraindik bazegoen harira ez zetorren zerbait: hain zuzen ere, Demokrito ez zela pitagorikoa.

Arazoa zen, iturrietan oinarrituta, ezin zitekeela esan Demokrito Pitagorasekin ados zegoenik. Besteak beste, Demokritoren ustez, atomoa zen munduaren oinarritzko elementua eta, Pitagorasen aburuz, berriz, zenbakia. Baina Trasilok bazuen autore horiek erlazionatzeko bestelako argudiorik. Izan ere, estalgabetu zuen Pitagorasek landutako zientzia guztiak Demokritorengan ere azaltzen zirela. Hala, gramatikariak zioen bi autoreak antzinako jakintsuaren isla zirela, biek izan zutela helburu hainbat jakintza arlotan sakontzea, ezagutza unibertsala lantzea. Autoreok lotzeko, Trasilori nahikoa izan zitzaion euren bizitzaren xehetasun hori.¹¹ Halaber, ildo horretatik justifikatu zuen sailkapen filologikoa.

Estrategia hori, Nietzscherentzat, erabakigarria izan zen, filologia filosofikoaren adibide argia iruditu baitzitzaion. Ikusteko erraza da Trasiloren ondorioak ez zuela oinarri zientifikorik, zeren, Demokritoren eta Pitagorasen gaineko testigantza eta dokumentuak bilduz gero, ezin zitekeen bi autoreak bateratuko zituen punturik aurkitu. Filologia positibistaren metodoaren eta irizpideen baitan, ezin zitekeen esan Demokrito pitagorikoa zenik, ez baitzegoen hori frogatuko zuen dokumenturik. Hortaz, Trasilok egin zuena espekulazioa zen zientziaren ikuspuntutik.

Nietzscher, aitzitik, sailkapenaren baliozkotasuna baino, Trasiloren erdua azpimarratu zuen koaderno horretan, garatu nahi zuen zientziaren aitzindari garrantzitsua iruditu baitzitzaion. Izan ere, Demokrito eta Pitagorasen egokitze teorikoa bainoago, Trasilok esanguratsua iruditu zitzaion behaketa biografiko bat izan zuen irizpide. Ostera, horretarako, autore horiek distantziatik behatzea beharrezkoa zen, testuetara hertsiegi lotu gabe. Ondorioz, iturriak gainditzeak, ikerketa pobretu baino, ahalbidetu egin zion autoreen arteko lotura berriak ikustea, eta, hala, filosofoak pentsamenduaren historiari egin zioten ekarpenaren arabera uztartu zituen. Distantzia eta begirada bateratzailea ziren, beraz, Alexandriako liburuzainak erakutsitako ezaugarriak: Nietzscheren aburuz, filologia filosofikoaren oinarriak.

Bada, lehen aurreratu moduan, Nietzscher etekin filosofikoa atera zien egin zituen lan filologikoetako askori. Horiek aztertzeak erakusten du autorearen ideia entzutetsu eta kitzikagarrienek, sarritan, unibertsitateko betebeharrak zituztela oinarri, esaterako, hitzaldi eta eskolen prestaketa, ikerketa lan eruditua eta antzeko beste zenbait betekizun. Hori baino garrantzitsuagoa da, ordea, ariketa horiek autorearengan izan zuten eragin sakona. Horren erakusle da, adibidez, Demokritori buruzko koadernoak. Izan ere, Trasilok aurrekari metodologiko oso garrantzitsua da, ez kontu filologiko soilengatik, Nietzscheren kultur kritikaren oinarritzat har daitekeelako baizik.

Segidan, Nietzscher 1872an eman zituen hezkuntzari buruzko hitzaldiak izango ditut hizpide, bertan biltzen eta garatzen baitira orain arte azaldutako ideiak.

Hezkuntza zentroei buruzko hitzaldiak

Nietzscher, bere *opera prima* argitaratu eta gutxira, ‘Gure hezkuntza erakundeen etorkizunari buruz’ konferentzia zikloa eskaini zuen, 1872ko urtarril eta martxo artean. Iritsi zaigun testuan, ez dago *Tragediaren jaiotza*-ren konplexutasun sinbolikoaren arrastorik, eta nabarmentzekoa da zein zehaztasunekin heltzen dion hezkuntzaren gaiari. Estiloari dagokionez, elkarriketa formatuan idatzita dago. Hori, inolaz ere, ez da hutsala. Aitzitik,

formaren bidez edukia indartzeko nahia erakusten du idazkera horren hautuak. Izan ere, testuak Platonen elkarrizketak ekartzen ditu gogora, eta, hala, Nietzschek edukiaren kutsu filosofikoari eutsi zion. Bestalde, azaltzen zaigun eszenan hiru pertsonaia daude: bi ikasle, batetik, eta izenik gabeko filosofo garrantzitsu eta ospetsu bat, bestetik. Bada, arrazoizkoa da pentsalari ezkutua Schopenhauer dela pentsatzea. Hala, Platon eta Schopenhauerren bidez, autoreak erreferentzia filosofiko bikoitza lortu zuen testua ontzean. Testuak igortzen duena garbia da: hezkuntzak filosofia behar du.

Hitzaldi horietan, *Bildung*-ari buruzko lehen zertzeladak gizartearen eta estatuaren markoan ematen ditu autoreak. Gaia irekitzeko, hizlariak hezkuntzaren «murrizketa» eta «hedapena» bereizten ditu. Baina, ikusiko dugun moduan, bereizte horrek ez du izaera soziopolitikoak bakarrik; kontrara, autoreak lantzen dituen ikuspuntu anitzen sarrerako atea da.

Alde batetik, hezkuntzaren murrizketarekin, humanitate ikasketen espezializazioari egiten dio erreferentzia, joera zientifiko-teknikoaren gainjartzeari. Orobat, fenomenoak zekarren ikasleen, irakasleen eta ikertzaileen gogo mehertasuna ere barnean hartzen du. Ideia horrekin, *Democritea* lanetan ikusitako auzi metodologikoa azaldu zaigu. Hala, 1867an landutako ariketa filologikoa kultur kritikarekin garbi lotu dezakegu, hezkuntzaren murrizketaren oinarria den heinean. Zentzu horretan, filologia klasikoaren eta kulturaren arteko erlazioa honela uler daiteke: zientzia naturala filologia klasikoaren beste osagaien gainetik egotea hezkuntzaren desoreka orokorraren isla besterik ez da. Honela dio filosofoak: «Gizakia zientziaren onerako esplotatzea da, gaur-gaurkoz, alde guztietan onartuta dagoen premisa burugabea».¹² Esplotazio horrek zekarren ikasleen espezializazioa, berriz, kultura orokorraren oztopo nagusia zen. Horren ondorioz, zioen Nietzschek, ikaslea «bere espezialitatearen baitan bakarrik egongo da *vulgus*-aren gainetik, gainerako guztian haren barruan egongo da».¹³

Beste aldetik, hezkuntzaren hedapena bi ikuspuntutatik erakusten du. Lehenik, zabalkundearen ezaugarri bezala definitu zuen estatuaren eskakizunei men egitea. Hala, egiaz, hezkuntza funtzionarioen lanpostuak betetzeko, industria bultzatzeko eta hazkunde ekonomikorako bitarteko soila zen. Puntu horretan, akaso Schopenhauerren gogo sendoak bultzatuta,¹⁴ Hegel ere kritikatu zuen, filosofia gobernuaren tresna huts bilakatu zuelako. Bigarrenik, eta estatuaren beharrekin lotuta, hedapena ikasketa zentroen gaindiduran ere aurkitu zuen. Lehen ere azaldu dugun moduan, horrek ikasle eta irakasleak erruz ugaritzea ekarri zuen. Horren eskutik, masifikazioaren ondorioz, hezkuntza klasikoa desagertzen ari zen.

Hizlariak, beraz, estalgabetu zuen bi joera horiek prozesu bat osatzen zutela, bazegoela elkarren arteko osagarritasuna. Esan ere, esan daiteke bi higikundeek alfer-gurpila sortu zutela: eskolatzea jaio berri zen gizarte kapitalistara moldatzean, formakuntza tekniko, bereizi eta azkarrak sustatu ziren. Horrek, berriz, industriaren garapena eta hirien hazkundera ekarri zituen, eta, hala, une oro zegoen betetzeko lanposturik. Bestalde, gizarte egitura horretan, soldata bilakatu zen langile ororen helburua, baita ikasketa klasikoaren eremuan ere. Nietzschek, hezkuntzaren joera propagandistiko eta diruzale horren aurka, nahiko ikusmolde aristokratikoa aurkeztu zuen.

Hain zuzen ere, Nietzschek zioen egiazko formakuntza, erabilgarritasunarekin edota dirugosearekin lotuta ez egoteaz gain, «espirituaren izaera aristokratikoan errotuta»¹⁵ dagoela. Ezin da ukatu Nietzsche kontserbadorea zenik, ezta ikuspuntu bereizlea zuenik ere. Dena dela, nabarmendu behar da filosofoa ez zela ari gaur egun oinarrizkoa dugun hezkuntza eskubidearen aurka. Hori bai, gizartean graduak bereizi zituen, hasieran aipatu ditugun bi filosofoek –Platon eta Schopenhauer– egiten zuten bezala. Izan ere, Nietzsche Platonen

irakurle porrokatua zen eta, bereziki, *Errepublika* elkarrizketaren oso zalea. Bada, Platonek, liburu horretan, gizartea sailkatu zuen: pertsonen arima brontzekoa, zilarrezkoa edo urrezkoa izan daiteke.¹⁶ Noski, Atenasko filosofoak *Errepublika*-n diseinatu zuen utopiako postu gorena urrezko arimarentzat gorde zuen, gobernari/filosofarentzat. Era berean, ikuspuntu innatista zuen Nietzschek, eta uste zuen hezkuntza pertsonak jaiotzaz dituzten gaitasunen arabera ordenatu behar zela. Esaterako, ondo iruditzen zitzaion jendea formakuntza urriko lan eta funtzioetarako formatzea; horrek ez zituen gaitzesgarri egiten. Garrantzitsuena zen, baina, pertsona horiek oinarrizko jakintzen eskakizunetara lotu zitezten, euren gaitasunetatik kanpo zeuden eremuetara sartzen ahalegindu gabe.¹⁷ Jainua sortzea baitzen hezkuntza klasikoaren xedea, eta horri jarraitzea zorioneko gutxiengo baten esku baitzegoen.

Aurkeztu berri dudan gizartearen ikusmolde innatista entzuteko gogorra da gaur egun; baina, aldi berean, balio handia du, Nietzscheren Antzinaroari buruzko ikuspuntu esanguratsu eta bizigarriaren oinarria den heinean. Hezkuntzaren hedapenaren eta murrizketaren ideia ez zen, aurreratu dudan bezala, eremu soziopolitikora mugatu. Kontrara, ezagutzaren teoria bilakatu zen Nietzscheren gaztetako pentsamenduan. Epistemologia horren bereizgarriena duen kutsu estetiko da, zeren eta, *Bildung* hitzarekin,¹⁸ pertsonak gauzei forma emateko duten gaitasunari egin zion erreferentzia. Hala, giza ezagutza, zientifikoa barne, atzera ekarri zuen autoreak, gizakiaren oinarrizko forma-gaitasunera.¹⁹ Horren ondorioz, gizarte eremuko innatismoa, kutsu atzerakoia duena, bizitza iturri bilakatu zuen ezagutzaren alorrean. Horixe dugu filosofoaren ohiko gazi-gozen adibidea.

Aipatutako ezagutzaren teoria hobeto azaltzeko, gure ohiko bizipenetara jo dezakegu. Esaterako, olerki edota kontakizun onak irakurtzean, iruditzen zaigu ez ginatekeela gai izango autoreak ondutakoa guk geuk sortzeko: batetik, formarengatik, autoreari idazkera ederra egozten diogulako, estiloaren abilezia; bestetik, munduko fenomenoak harilkatzeko duen gaitasunak atentzioa ematen digulako. Nabarmenezkoa da, bestalde, sortzaileak ikusten dituen erlazioak ez datozela bat zientzia-ikerketekin. Aitzitik, eta honek berdin balio du edozein artistarentzat, lotura horiek intuizioaren bitartez egiten dira, ez demostrazioaren bidez. Eta, esan gabe doa, Nietzscheren iritziz, edozein artelan bizigarriagoa da ezagutza iturri objektiboak baino.

Gaiaren erdigunerantz jotzearen, Nietzscheren aburuz, pertsonen artean badira intuizio-gaitasun finagoa dutenak. Horien gailurrean, berriz, jainua dago, kulturaren ondasun arraro eta preziatuena. Gorago esan dugu, gainera, haren esku dagoela kulturak bizirik irautea. Zein zentzutan, ordea? Jainuak munduaz duen pertzepzioa adierazpide artistikoen bitartez gorde eta transmititzen duelako. Bereizmena da jainuaren ezaugarri nagusia, munduko fenomeno azpimarragarrienak hautemateko gaitasuna. Halaber, aditutakoa lan gogoangarrietan jasotzen du, denboraren marruskadurak hondatzen ez dituen obretan. Zentzu horretan, jainuak kulturen arteko elkarrizketa modukoa sortzen du, Antzinaroaren eta garaikidetasunaren arteko zubi lana du jomuga. Horrenbestez, kultura ororentzat funtsezkoa da bere garaiko klasikoetan arreta jartzea, haiek baitira kultura unibertsalaren ispilua. Arteak garrantzia du, Antzinaroaren ezagutza intuizio artistikoaren bidez berpizten duelako. Horren adibide ziren Schiller, Goethe, Lessing, Winckelmann, Beethoven, Schopenhauer eta baita Trasilo bera ere. Berpizkunde horren berri izateko, ostera, unibertsitateko ikasle eta irakasleek gustu estetiko eta ezagutza orokorra beharrezkoak dituzte; XIX. mendean galtzen ari ziren bi bertute.

Ondorioz, oro har, humanitateetako goi mailako ikasleek eta, bereziki, filologo klasikoek, gai izan behar zuten antzinako kulturako ereduak erakusteko. Horretarako, bigarren hezkuntzatik hasita, ikasleak izen handiko autoreen menpe egon behar zuen –Nietzsche bera

Schulpforta-n bezala-, harik eta, klasikoen ezagutza sakonari esker, autonomia eskuratzen hasi arte. Ordea, garai hartan, goizegi bultzatzen zen ikasleen autonomia. Nietzschek horren adibide argizat zituen *deutsche Arbeit*²⁰ ariketak.²¹ Autonomia faltsu horrek, gainera, ondo erakusten zuen klasikoak nola zokoratzen ziren, ez baitziren behar besteko arretarekin ikasten eta, horrenbestez, ez baitziren akuilu pedagogiko moduan erabiltzen.

Izan ere, Nietzscheren iritziz, antzinako ereduek kulturarentzat emankorrak izan behar zuten, pertsonen bizitza hobetzen lagundu behar zuten. Horrek esan nahi du, oro har, goi mailako humanitate ikasleek kultura orokorra eta sentsibilitatea garatu behar zituztela. Bestela, ezingo zituzten klasikoak behar bezala balioztatu. Baina, zein onura ekar ziezaieketen klasikoek modernitateko pertsoneri? Batetik, lasai eta sineskeriarik gabe bizitzea, eta, bestetik, kulturako erreferenteen ekarpenarekin gozatzea. Bi ezaugarri horiek ziren, hain zuzen ere, Antzinako Grezian filosofoarekin lotuta zeudenak. Ezagutzaren helburu nagusia, beraz, horixe zen, hobeto bizitzea. Lotura gehiago iradokitzeagatik, Demokritorengan ere aurkitu zuen ideia hori, 1867ko ariketa filologikoan: «Hark [Demokritok] zorioneko bizitza gauzen ezagutzan oinarritu zuen, hark natura ikertuz adorez bizitzea lortu nahi zuen».²²

Azken batean, eta guztia lotuz, hezkuntzaren murrizketa eta hedapena gainditzean eta, hedapenez, erabilgarritasuna baztertu eta estatuarekiko lotura apurtzean, ezagutza emankor egin nahi zuen Nietzschek. Oro har, ezagutzak hobeto bizitzeko balio behar zuen. Asmo horren kontrako aldean zegoen ezagutza zientziazale edota positibista, Antzinaro momifikatua sortzen ari zena. Antzinaroa biziberritzen baino, dokumentu artean lurperatzen ari ziren. Horixe bera salatu zuen bigarren *Ezorduko gogoeta*-n. Lan horretan zioenez, historiak nor bere garaia baikor heltzeko balio behar zuen. Historiaren bitartez objektibotasunaren izenean pertsonaia eta gertakari bilduma egitea, berriz, Antzinaroa eta, bide beretik, kultura modernoa hondatzeko moduak ziren: «Zientziaren ondorioz, historiak zientzia izan beharko lukeela eskatzearen ondorioz»,²³ bigarren *Ezordukoan* Nietzschek dioen moduan.

Ibilbide honekin, espero dut garbi gelditu dela filologia, filosofia eta kulturaren arteko lotura. Amaitzeko, Nietzscheren rol iraultzaileari buruzko gogoeta egingo dut, haren ekarpenaren nondik norakoak argitzeko.

Ondorioak

‘Gure hezkuntza erakundeen etorkizunari buruz’ testua irakurri ostean, harira dator galdetzea ea Nietzsche egiaz hezkuntzaren erreformatzailea izan zen edo ez. Autoreak garaiko hezkuntza programak eraldatzeko eman beharreko pausoak eman al zituen? Galdera horiek ditugu ardatz. Gainera, ikusiko dugu Nietzschek zenbait faktore aurka zituela.

Izan ere, hitzaldien koherentzia zalantzarria izan daiteke. Adibidez, soldatapeko irakasleak kritikatu zituen, baina ez dugu ahaztu behar Basileako Unibertsitateko filologia klasikoko katedraduna zela. Hortaz, Nietzsche bera ere erakunde horretako langilea zen, eta, dakigunez, ez zion inoiz egiazko hezkuntzaren izenean soldatari uko egin. Horrez gain, haren hezkuntzaren ikuspuntu klasikoa kontuan izanda, zaila da Nietzsche iraultzaile edota aurrera egile bezala ikustea.

Zailtasunak zailtasun, egindako bideak eman ditzake Nietzscheren gogo erreformista ulertzeko gakoak. Horretarako, baina, fokua jarduera akademikora bideratu behar dugu, bertan ikusten baita ez zela garaiko filologia-jarduera nagusiarekin bat etorri. Hasteko eta behin, filologoa, zientzialaritzat baino, hezitzailetzat zuen, eta horrek asko esaten du filosofoak

hartu zuen lanerako noranzkoaz. Ez da kasualitatea, beraz, lan filologikoetan egoera aldatzeko baliagarriak izango zitzaizkion euskarriak bilatzea (eta aurkitzea), 1867an Trasilorekin ikusi dugun moduan. Era horretara, filologia metodologikoki hedatu zuen, eta hori bazen garaiko kulturaren erroari eraso egitea ere. Ondorioz, politikoki baino, Nietzsche akademiatik jardun zen eraldaketa prozesu hori gauzatzen eta, ahal zuen neurrian, zituen ikasle apurrei gogo hori transmititzen. Ikuspuntu horretatik, esan daiteke iraultzailetik bazuela.

Hain zuzen ere, 1872ko konferentzietako prosa ironiko, hiperboliko eta kitzikatzailleak gaztetako aurkikuntzetako asko biltzen ditu, erakusten saiatu naizen moduan. Hitzartze horiekin, ezagutza klasikoari balioa eman nahi izan zion, eta baita hari naturalak zitzaizkion bideak seinlatu ere. Azken buruan, humanitate ikasleen askatasuna zuen aldarri, nor bere kabuz ezagutza bideak eraikitze gaitasuna sustatzea, zientziaren dogman erori gabe. Hala, XIX. mendeko *Bildung* kontzeptuarekin bateragarria zen irakaskuntza klasikoa bultzatu nahi izan zuen, korrontearen aurka bazen ere. Laburbilduz, Nietzscheren helburu nagusia kultura modernoa aberastuko zuten perspektibak garatzea izan zen, Antzinaroaren ikuspuntu emankor eta bizigarriak oinarri hartuta.

Oharrak

1. Aipuei buruzko oharra: Tamalez, artikulua honetarako erabili ditudan Nietzscheren lanak ez daude oraindik euskarara itzulita. Hortaz, originala izan dut oinarri, eta aipatutako pasarteak neronek itzuli ditut. Haatik, aipatu berri dudana gaztelaniazko edizioaren erreferentzia ere seinlatu dut, irakurleari kontsulta errazteko. Horretarako, gaur egun ohikoa den aipatzeko modua erabili dut. Lehenik, edizioaren siglak; ondoren, liburukiaren zenbakia; azkenik, orrialdea. Adibidez: OC I, 275 (*Obras completas*, 1. lib., 275. or.). Edizioen eta siglen informazioa amaierako bibliografia atalean daude.
2. Dena dela, Förster-Nietzscheren ekarpenak gabezia handiak zituen, eta XX. mende hasierara arte ez ziren azaldu egungo Nietzscheren 'Colli-Montinari' edizioak.
3. KGB II/i, 275; CO I, 500.
4. Nietzschek, bikaintasuna zela-eta, 24 urterekin lortu zuen Basileako filologia klasikoko katedra. 1869tik 1879ra bertan jardun zen irakasle. 1879an, osasun arazoak tarteko, irakaskuntza utzi behar izan zuen, eta idazten eta bidaiatzen eman zituen gelditzen zitzaizkion buruargitasun urteak, pairatzen zituen buruko minentzako hobekien zetorkion klimaren bila. Etapa horretan idatzi zituen beren lan filosofiko ezagunenak, baina filologia zuen oinarri akademiko.
5. Gai honi buruz: A. K. Jensen, 'Friedrich Ritschl, Otto Jahn, Friedrich Nietzsche', *German Studies Review* 37(3), 2014, 529-547.
6. KGW II/i, 248; OC II, 220.
7. Hezkuntza plan hori sakonago aztertzeko, ikus W. von Humboldt, 'Sobre la organización interna y externa de las instituciones científicas superiores de Berlín', *Logos. Anales del Seminario de Metafísica* 38, 2005, 283-291. Testu hori 1810eko apirilean eta maiatzean idatzi zuela uste dute adituek.
8. Bereziki, bigarren *Ezordukoan*, 'Historiaren bizitzarako onuren eta desabantailen gainean', KSA I, 248-333; OC I, 695-748.
9. OC I liburuak polemika horri buruzko gehigarria dakar, 'La polémica sobre *El nacimiento de la tragedia*', 861-965 orrialdeetan. Aparte ere argitaratu zen lehenago: L. E. de Santiago Guervós, *Nietzsche y la polémica sobre El nacimiento de la tragedia*, Malaga, Ágora, 1994.
10. BAW 3, 95; OC I, 58 [41], 285.
11. Xehetasun gehiagorako, ikus R. Carrión Arias, 'Los estudios *Democritea* de 1867-1868. Nietzsche descubriendo el nuevo método filológico', in C. Denat eta P. Wotling (argk.): *Nietzsche. Les premiers text sur les Grecs*, Reims, Éditions et presses universitaires de Reims, 2016, 79-135.
12. KSA I, 670; OC I, 498-499.
13. KSA I, 669; OC I, 498.
14. Ikus A. Schopenhauer, 'Sobre la filosofía de la universidad', in *Parerga y Paralipomena I*, Madril, Trotta, 2009, 165-222.

15. KSA I, 698; OC I, 513.
16. Ikus *Errepublikak* 415a.
17. Ikus KSA I, 716-717; OC I, 523.
18. *Bild* 'irudi' eta 'forma' da alemanez.
19. Azpimarragarria da gai horri buruz Kilian Laverniak egin duen lana. Ikus K. Lavernia, 'Texturas goetheanas en el joven Nietzsche: apuntes sobre las funciones del Fausto en *El nacimiento de la tragedia*', *Estudios Nietzsche* 17, 2017, 43-61.
20. Ikasleei eskatzen zitzaizkien sorkuntza propioak ziren, euren idazketa baliabideak profitatzen erakusteko.
21. Ikus OC I, 503; KSA I, 678-679.
22. OC I, 52 [30]; BAW 3, 328.
23. OC I, 711; KSA I, 271.

Bibliografia: erabilitako Nietzscheren edizioak

Gaztelaniaz

- CO: *Correspondencia*, Luis Enrique de Santiago Guervósek zuzendutako edizioa, 6 lib., Madril, Trotta, 2005-2012.
- OC: *Obras Completas*, Diego Sánchez Mecak zuzendutako edizioa, 4 lib., Madril, Tecnos, 2011-2016.

Alemanez

- BAW: *Werke und Briefe. Historisch-kritische Gesamtausgabe*, 5 lib., Munich, Beck, 1933-1940.
- KGW: *Werke. Kritische Gesamtausgabe*, Giorgio Colli eta Mazzino Montinariren edizioa, Berlin eta New York, Walter de Gruyter, 1967.
- KSA: *Sämtliche Werke. Kritische Studienausgabe*, Giorgio Colli eta Mazzino Montinariren edizioa, 15 lib., Berlin eta New York, Walter de Gruyter, 1980.
- KGB: *Sämtliche Briefe. Kritische Studienausgabe*, Giorgio Colli eta Mazzino Montinariren edizioa, 8 lib., Berlin eta New York, Walter de Gruyter, 1986.

JAKIN

Martin Ugalde Kultur Parkea
 Gudarien etorbidea, 29
 20140 ANDOAIN
 943 21 80 92
 jakin@jakin.eus
 www.jakin.eus